

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Denok dakigu zerbitzu edo enpresa bati bizia ematen diona bezeroak direla; gure produktua aztertzerakoan, nabaritu dugu gure bezero potentziala garraio publikoa maiz erabiltzen duten pertsonak izango direla. Oro har, lanera joateko, garraio pertsonala ez dutenak edo garraio pertsonal bat gidatzeko adina ez dutenak, izango dira gure aplikazioaren zerbitzuak erabilgarrien egingo zaizkienak. Gainera, noizean behin garraio publikoa erabiltzen duten pertsonentzat ere erabilgarria izan daiteke. Orokorrean, aplikazio hau edozeini ondo etorriko litzaioke, izan ere, nork ez du inoiz hartu noiz edo noiz tren edo autobus bat? Eta, are gehiago, nork ez du noizbait arazoren bat izan garraio publikoarekin?

Batez ere, pertsona gazteak eta garraio pertsonalik ez dutenentzat pentsatuta dago App hau, baina edozeinek erabili dezake. Baldintza bakarra gure zerbitzua erabiltzeko ordenagilu edo mugikor bat edukitzea da. Horrez gain, interneta eskuragarri eduki behar da aplikazioak ondo funtzionatu dezan.

Gure zerbitzua hasieran Gipuzkoan bakarrik erabili ahalko da, ondorioz, gure bezero gehienak Gipuzkoarrak izango dira. Probintziako edozein herritan erabili izango daiteke, batzuetan tren zerbitzua (renfe) ez egon arren autobusa (Lurraldebus) eta berdin alderantziz.

Gure aplikazioa Gipuzkoarrei zuzenduta dagoen arren, oso erabilgarria eta funtzionala da kanpotik datorren jenderentzat erabiltzeko erraza delako. Demagun, Inglaterrako familia bat oporretara datorrela Gipuzkoara eta garraio publikoa erabili nahi dutela. Gure aplikazioan sartuta edo jaitsita bi klik eginez garraio publikoaren ordutegi guztiak eta edozein autobus edo trenek eduki ditzakeen arazoak ikus ditzakete erreztasunez. Izan ere, gure aplikazioa Ingelesez, Euskaraz eta Gaztelanieraz erabiltzeko aukera egongo da etor daitezken turistetan pentsatu dugulako. Azkenik, gure App-a-ren erabilera altua bada Gipuzkoan; pentsatu dugu Euskal Herrian zabaltzea da.



App-ak arrakasta handia izaten badu, gure proiektua gehiago zabaltzeko aukera edukitzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, gure aplikazioa denontzat oso erabilgarria dela



pentsetzen dugu eta Euskal Herrian hasi eta arrakasta baldin badugu, nazionalki zabiltzen saiatuko ginateke.

